

Tokiko Gobernu batzarrak, 2021eko uztailaren 22an egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

15.- CHILLIDA LEKU MUSEOAREKIN ZUZENEO DIRULAGUNTZA HITZARMENA. - Kultura delegatuak Chillida Leku Museoarekin zuzeneko dirulaguntza hitzarmenaren xehetasunak azaldu ditu.

Hitzarmenaren xede nagusia Chillida Leku Museoarekin elkarlanean egindako ekimenak diruz laguntzea da.

Hitzarmena 2021. urterako izango da, eta gehienez lau urtera arte luza daiteke urtez urte hitzarmena aztertu ondoren.

Dirulaguntzaren zenbatekoa 15.000 € da.

Aztertu da Tokiko Garapenerako Batzordeak 2021eko uztailaren 16an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da:

- Hernaniko Udaleko alkateak Hauser & Wirth San Sebastian, SL-rekin (Chillida Leku Museoa) sinatzekoa den hitzarmena onartzea.
- Hitzarmen hori 2021 urterako da. Zuzeneko dirulaguntza da, 15.000 eurokoa. Gastu hori partida honen bitartez ordainduko da: 1 02.481.02.334.00 2021 6733 CHILLIDA LEKU HITZARMENA

Eta horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzitarako epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114 c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Hernanin, 2021eko uztailaren 22an.

Idazkaria,